

TOKIKOM

2024ko uztaila | 249. zenbakia

aikear!

txorrialdizkaria



Gaizka Peñafiel
Euskal musika pasio

Txorierriko Txepetxa

AEK euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1 mailak

HABEk homologatutako euskaltegia
Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Herrian bertan ikasteko aukera

Autoikaskuntza

Online

Matrikula zabalik irailaren 26ra arte

Gorbea kalea 5, behea, Derio

94 454 39 67 | 607 59 87 94

txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA
HABE

TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

LARRABETZUKO
UDALA

Dirulaguntza bereziak A1 mailarako eta 16-18 urte bitartekoentzat (C1)

4	Iritzia
5	Laburrak
8	Lagatzu eguna
10	Unai Etxebarria
12	Menditik patxadaz... Araba II
14	Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
16	Gai nagusia... Gaizka Peñafiel
22	Diruz lagundutako edukia - Gurena
23	Larrabetzuko jaiak
28	Lezamako jaiak
32	Emaús
33	Psikologia
34	Herbarioa
36	Sukaldaritza
37	Denborapasa
38	Agenda



10 Unai Etxebarria



16 Gaizka Peñafiel



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea) 944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561 aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Maketatzailea: Aner Mentxaka

Kolaboratzaileak: Azler García, Oihana Astobieta, Ursula Tomas, Idoia Andrés, Gaizka Peñafiel, @txiribita_mundi, EMAUS, Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka.

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza

Publizitatea: Iratxe Pirla (688 782 642)

Banaketa: Eragin

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik



AZLER GARCIA
Hizkuntzalaritzan doktoregaia

Tradizioak beste zerbait ere badirenean

San Juan bezperako kantuak direla eta, Spentsatzen hasi naiz bidean zenbat tradizio galdu zaizkigun. Etxean tostadak egiten ditu amamak garizumaren bueltako ospakizunetan; aititek badaki txapela zelan jantzi eta badaki errekonozitzen nork hemengo eta hango erara daroan. Beste baten etxean jakingo dute elizako kanpaikadak interpretatzen, eta besteren batenean jarraituko zaio alkohola etxean egiteko tradizioari. Baina kapaz izango gara, dagokionean, ikusitakoak praktikan ipintzeko? Beharrezkoa da?

Gehienetan ez gara ibiliko musean, tutean edo briskan, baina badakigu kartetan, gaur egungo *comemierda* edo *mentiroso* jokoetan bada ere. Antzinako errezetak ber-rasmatu egiten ditugu eta bizirik mantentzen ditugu, neurri baten behintzat, txikitan ikasitako kantuak, dantzak, ipuinak... Baina zergatik bizi dugu, bizi dut tradizioei jarraitzearen kontu hau hainbesteko nostalgiaz? Pentsatuko dute datozen belaunaldiak ere galdu dituztela geuri ikusitako ohiturak? Pentsatuko dute tradizioak galtzarekin batera geu ere galdu egingo gara?

Turismoa Txorierritik



OIHANA ASTOBIETA
Irakaslea

Udaren etorrerarekin batera, turista kopurua nabarmen hazten da gurean. Gehien-gehienak aireportura datozkigu, baina Loiun lur hartu arren, gure bailara airez baino ikusten ez duten turistak izaten dira horietako asko. Ondo dakigu, gainera, turismo mota horrek zer dakarkigun Txorierrira: hegaldi kopurua hazi egiten da udan eta gauez beranduago ixten da aireportua, kutsadura gehituz eta herritarren atsedena kaltetuz.

Bada bestelako turismo mota bat, oster, Done Jakue bidea egiten ari direnena. Duda barik, askoz ere osasuntsuago dugu erromesen turismoa. Egutero ikusten ditugu erromesak, eta udan gero eta gehiago gainera. Baina behin baino gehiagotan galdetu izan diot nire buruari ea zer pentsatuko duten erromes horiek gure bailaraz. Zer ulertuko ote dute gure ingurua ikusita? Herritarrekin duten harreman apurretan, euskararik entzungo al dute? Ziur naiz irudi lausoa eraikiko dutena euren memoriatan. Izan ere, bailara erdia baino ez dute pasatzen; hortaz, beste erdia ezin ezagutu, noski.

Eta zer eskatuko diogu, bada, turista horri, guk geuk ere gure eskualdea ez badugu behar beste ezagutzen? Bertakook ere turismoa Txorierrin egin genezake, badago eta zer ezagutu. Uda sasoian, gainera, aukera ezin hobea izaten da ingurua ezagutzeko, eguraldia lagun izateaz aparte, herri eta auzoetako jaiak aukera ederra izaten direlako horretarako. Halandaze, egin dezagun turismoa jairik jai! Lekuan lekuko errealitatea ezagutzeko modu atseginagorik?

Txorierrin bertan badago non aukeratu udako jaietan: Zamudioko santomasetatik hasi, eta Lezamako edo Sondikako santakurtzeetara. Oraintxe pasa berri ditugu Goitioltzako, Goiherriko eta Asuako jaiak, denak ere "autentiko-autentikoak". Laster datoz Aldekonekoak ere, -horiek egingo digute uztaila eta abuztua arteko zubi lana-. Eta gero abuztua, iraila...

Ikusten duzunez, ondo pasatuz Txorierrin ezagutzeko aukerak egon badagoz. Jaien agenda bateratua prestatu beharko genuke, ez duzu uste? Aldizkari honetan bertan egin liteke, agenda digitalean. Ondo legoke, ezta? Zer deritzozu?



‘Gureneren ipuinak’ haur-literatura lehiaketa antolatu du Deriok

Derioko Udalak ‘Gureneren ipuinak’ haur-literatura lehiaketa antolatu du lehen aldiz. Lehiaketan edozein pertsona har dezake parte, bere nazionalitatea eta adina edozein direla ere, baldin eta lan originala, beste lehiaketa batera aurkeztu ez dena, eta argitaratu edota saritu gabea aurkezten badu. Ipuinak 0 urtetik 3 urtera bitarteko umeentzat izan behar dira, eta euskaraz edota gaztelaniaz idatzita egon. Lanak irailaren 1era arte aurkeztu ahalko dira, eta irabazleak 1.000 euro eta ziurtagiria jasoko ditu saritzat.

Udalak jakinarazi duenez, bi arrazoik bultzatu dituzte lehiaketa antolatzea. Alde batetik, aurten Bizkaian jaio zen lehen umea Deriokoa da, eta konturatu ziren ez zutela jaioberriari ongietorria emateko ezer. Bestetik, behin irratian baten deia jaso zuten eta eskatu zieten «Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Derioko plazan» ipuinetako esaldi ezagunaren jatorria argitzen laguntzeko. “Esaldia herri askotako plazetara eraman den arren, jatorrizkoa Deriokoa zelako us-tea zutela esan ziguten, eta ea argitzen lagundu ahal genien. Ikertzen ibili ginen eta ezin dugu ziurtatu jatorrizkoa hemengoa denik, baina oso aspaldiko erreferentziak aurkitu genituen. Bi ideia horiek bateratuta erabaki genuen haur jaioberrientzako ipuin lehiaketa egitea”.

Lehiaketaren oinarrietan zehaztu dutenez, ipuinak gutxienez testua eta irudiak izango ditu, eta formatu-proposamenak ere onartuko dira. Balio sozialak edo humanitarioak sustatu beharko ditu, hala nola elkartasuna, ontasuna, berdin-

tasuna, diskriminaziorik eza, elkarrekiko laguntza eta natura-ingurunearen zain-tza. Gainera, hurrengo esaldi hau jaso beharko du: “Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Derioko plazan”.

Ipuin irabazlea aukeratzeko orduan, epaimahaiak kontuan hartuko ditu testu-edukiak eta eduki sinbolikoak eta sententzialak. Balorazio-irizpideak hauek izango dira: formatuaren eta narratibaren egokitasuna (% 50), gaien tratamendua eta balioak (% 30) eta originaltasuna (% 20). Lanak posta elektronikoz aurkeztu ahalko dira gurene@derio.eus helbidera bidalita, edo udaletxean bertan, astelehene-tik barkura, 08:00etatik 14:00etara.

Posta elektronikoz bidaltzen badira, gaien “GURENEREN IPUINAK” idatzi beharko da, eta bi fitxategi erantsi. Lehenengo fitxategian zehaztu beharko dira ipuinaren izenburua, testua PDF formatuan, irudiak, eta formatu berezirik izanez gero, haren deskribapen laburra. Bigarren fitxategian, bestalde, zehaztu beharko dira ipuinaren izenburua, egilearen izena, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa, NANaren kopia eta esaldi sinatu bat adierazteko lan originala dela, argitaratu eta saritu gabea eta ez dela inongo lehiaketara aurkeztu. Lanak udaletxean aurkezten badira, “Gureneren ipuinak” izeneko karpeta batean entregatu beharko dira, eta karpeta horretan bi gutun-azal itxi sartu: gutun-azal bakoitzak izan beharko du bidalketa elektronikoa fitxategi erantsietarako zehaztutako eduki berbera. Informazio gehiago, udal-webgunean.

Loiuko Splashpark irailaren 15era arte izango da zabalik

Josu Andoni Begoña Loiuko alka-teak bere webgunean jakinarazi duenez, Splashpark edo ur-jolasen eremua irailaren 15era arte izango da martxan. Ur-jolasen eremua astelehene-tik barkura, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, zabalduko da, eta zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara. Beste alde batetik, Begoñak gogora ekarri du iaz onartutako ordenantzan jaso den moduan debekatuta dagoela inguruan urtebetetzeak, merienda handiak edo piknikak egitea.

Larrabetzuk 20.000 euro zuzenduko ditu baso-lurra erostera

Larrabetzuko Udalak azaldu duenez, gaur egun pinuen eta hazkunde azkarreko beste espezie exotikoen bartzuen monolaborantza nagusi da hango basoetan, eta, ondorioz, “lurzoria pobretuz eta biodibertsitatea gutxituz joan da”. Horregatik, eta baso-lurzati pribatuetan eredu jasangarriagoa bultzatzeko, baso-lurra erosten hasi ziren 2021ean, eta dagoeneko lau hektarea erosi dituzte. Aurten, 20.000 euroko diru-partida esleitu dute baso-lur pribatuak erosteko, eta jabeek irailaren 11ra arte egin ahalko dute eskaintza.

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21



AFA bihurtu da Derioko AMPA

Derioko eskolako Umeen Ikasleen Aiten eta Amen elkarteak beste urrats bat egin du inklusiorantz, eta izena aldatu egin du: orain Ikasleen Familien Elkarte da (AFA, gaztelaniaz). Gizarte-sareen bidez jakinarazi dutenez, familia-eredua progresiboki aldatu da azken urteotan, eta gaur egun familia-asko daude gizartean, hala nola nuklearrak, guraso bakarrekoak, homoparentalak, adopziozkoak eta abegi-hartzaileak. Hortaz, Estatuko gurasoen elkarteak euren izenak aldatzen dabilta. "Familia izateko modu berriak normalizatzea ezinbestekoa da helduentzat zein txikiarentzat, eta gure elkarteak ekarpena egin nahi du normalizazio honetarako bidean". AFAk logotipo berria ere estreintatu du.

Larrabetzuko Gazte Eguna, abuztuaren 3an

Hori Bai Larrabetzuko gaztetxeko kideek abuztuaren 3rako antolatu dute aurtengo Gazte Eguna. Ohikoa denez, egitarau zabala prestatu dute egun osorako, eta, hortaz, jai-giroa goizetik hasiko da. Kittu taldeak doinuak beteko du Larrabetzu goizean, eta 15:00etan bazkaria izango da.

Bazkaldu ostean, 17:00etan, olinpiadak egongo dira, eta 19:00etan Dystopia elektrotarangaren txanda izango da. Ekitaldia 22:15ean egingo dute, eta 22:30ean kontzertuak hasiko dira: Tatters, Hofe X 4:40 eta Les Testarudes. Gaua biribiltzeko, kontzertuak amaituta, dj-ak izango dira gaztetxean: Keep-A, Alva eta Lamiamari.



Bost txorierritar daude Jaurlaritzak isuna ipini dien Ernaiko gazteen artean

Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen kontrako espetxeratze-agindua salatuzko, 2023ko irailean, Ernaik bi protesta egin zituen Bilbon eta Gasteizen. Gazte-erakundeko kideak kateatu egin ziren eta trafikoa moztu zuten Espainiako Gobernuaren Bilboko ordezkariordetzan eta Ertzaintzaren Gasteizko komisaldegian. Protestetan 133 pertsona identifikatu zituzten, eta Herritarren Segurtasunerako Legean –Moxal Legea– oinarrituta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak 1.500 eta 2.500 euro bitarteko isunak ipini zizkien identifikatuei, orotara 290.500 euro. Isuna jaso dutenen artean Txorierriko bost gazte daude.

Azaldutakoaren arabera, gazteetako lau Bilboko protestan identifikatu zituzten eta bakoitzak 2.500 euroko isuna

jaso du; bosgarrena, bestalde, Gasteizen identifikatu zuten eta 1.500 euroko isuna jaso du. Adierazi dutenez, dagoneko helegiteak aurkeztuta dituzte eta ahalordetza eman diote abokatuari; hortaz, epaileak zer erabaki zain daude.

Gazteen esanetan, Jaurlaritzak hartutako neurria gehiegizkoa izan da, "halako ekimenetan isuna arduradun moduan identifikatutakoei ipini ohi dietelako". Gainera, azpimarratu dute isuna "ezker independentismoa gorantz ari den unean" ailegatu dela, "helburua baita gure jarduera gelditzeko". Gazteei isunak ordaintzen laguntzeko, hainbat ekimen ipini dira martxan, hala nola *crowdfunding* bat eta zozketak. Era berean, hainbat ekintza egingo dira udan zehar, eta irailaren 8rako Donostian manifestazioa egitera deitu dute.

Loiuko udal-gimnasioa laster izango da prest

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, datozen asteetan hasiko da Larrondoko gimnasioa hornitzen. Azpimarratu duenez, Larrondokoa da Loiuko lehen udal-gimnasioa. Gimnasioan azken belaunaldiko makinak ipiniko dira, eta nahi duenak prestakuntza-ikastaro batean parte hartu ahal du, makinak modu egokian erabiltzeko. Izena ematea irailaren 15etik aurrera egin beharko da udaletxean bertan.

rre egin beharko da udaletxean bertan.

Gimnasioa 2024-2025 ikasturterako egongo da prest, eta lizitazioa eskuratu duen enpresa datozen asteetan hasiko da gimnasioa hornitzen. Begoñak bere webgunean zehaztu du Larrondoko gimnasioak izango duen makineria. Besteak beste, bertan ipiniko dira bizikletak, korrika egiteko makinak, gorputz-atalak lantzeko makinak, disko olinpikoak eta halterak.



Deriocomek 20 urte bete ditu

Deriocom da Derioko merkatarien eta zerbitzuen elkarte eta aurten 20 urte bete ditu. Urteurrenaren harira, "Etxekoa beti da ona" lelotzat duten paperezko poltsak banatzen dabiltza bezeroen artean, eta "Nik Derion erosten dut" lelotzat duten karameluak eta puxikak. Izan ere, Roberto Flores elkartearen presidenteak adierazi duenez, merkataritza txikia ez dago momentu onean, eta "inportantea da herritarrek kontzientzia hartzea gertukoa hobe dela, bai kalitate aldetik, bai tratu aldetik".

Horrezaz gainera, Floresek ezinbestekotzat hartu du dendeak eta zerbitzuek indarrak batzea eta ahalegin komuna egitea. "Ezinbestekoa da aurrera egiteko, eta horretan gabilta Deriocomen, ideia eta kanpaina berriak sustatuz". Jakin badaki

batzuetan zaila dela Internetekin eta merkataritza-gune handiekin lehiatzea, baina tokiko merkataritzaren indarguneak azpimarratu ditu herritarrek tokiko denden alde egin dezaten: kalitatea, tratu hurbila eta bezero bakoitzaren beharrezanetara egokitutako zerbitzua.

Gaur egun, 57 denda eta zerbitzu daude Deriocom elkartearen barruan, eta, Floresen hitzetan, ez da beharrezkoa erosketak egitera beste herri batera joatea, "Derion denetarik dugu eta". Herriko merkataritza-sarea zabala da, eta hainbat arlotako profesionalak daude elkartearen baitan. Arlo horien artean aipatu daitezke, besteak beste, osasuna, edergintza, moda, elikadura, etxeko tresnak, atsedena, teknologia eta administrazio-zerbitzuak.

Lau radar pedagogiko ipini ditu Deriok

Radarretako bi Txorierriko Etorbidean ipini dira, eta beste biak, Butroi kalean, bi noranzkoetan. Derioko Udalak jakinarazi duenez, radar pedagogikoak ipini izanak erantzuna ematen dio herritarrek 2024ko partaidetza-aurrekontuetan zehaztutako lehentasunei erantzuten die, eta "oinezkoentzat seguruagoa eta atsegina izan den udalerrinari eraikitzeke apustuari" eusten dio.

Radarren helburua da informazioa ematea, gidariak jabetzeko zein abiaduratan zirkulatzen dabiltzan. Hala ere, udalaren hitzetan, erregistratutako datuak ez dira inola ere erabiliko isunak jartzeko, "ez baitira matrikulak erregistratuko, ezta gidariak edo ibilgailuak identifikatuko ere". Autoek 30 kilometro orduko abiadura gainditzen badute, radarren display-a gorri ipiniko da; bestela, berde.

"Helburua da eremu hauetan ibilgailuen abiadura murriztea eta abiadura-mugarekiko errespetua eta kontzientzia sustatzea", adierazi du Esther Apraiz alkateak. "Gero eta mugikortasun-modu gehiago daude, eta, Derio guztiontzat seguruagoa eta atsegina izan dadin, guztion arteko oreka eta armonia bilatzeko beste urrats bat da". Bestalde, Derioko Udalak gogora ekarri du aurretik ere Mungialde Etorbidean radar pedagogikoak ipini zituztela.





Talentua badago Zamudion

Ahalegin berezia egin dute zamudioztarrek aurten, Lagatzu Egunean euren talentua erakusteko. Izan ere, Lagatzu euskara elkarteak antolatuta, talentu erakustaldia izan zen ekainaren 29an. Agertokira herriko bederatzi elkarte eta bi norbanako igo ziren, eta antolatzaileen esanetan, guztiek, salbuespen barik, oso lan politak eta landuak aurkeztu zituzten. "Nabaria izan da aurretik lan handia eginda zutela", adierazi zuten Lagatzukoek.



yedra floristas

Mikel Zarate, 2 · 48150 Sondika · Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 · yedrainterflora@hotmail.com



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31



SQUAT
TRAINING CENTER

ENTRENAMENTSU PERTSONALA · LESIOAK · OPOSIZIOAK
ONLINEKO JARRAIPENA · KIROL ERRENDIMENDUA

Urkiola 4, Derio · squattrainingcenter.es · 686 917 409



a: Jon Etxezagarr

Ohikoa denez, ekaineko azken zapa-tuan Lagatzu Eguna – Euskal Jaia ospatu zuen Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak. Ekintza berezia prestatzen dute urtero, eta oraingo honetan talentu erakustaldia gozatzeko aukera egon da. Horrela, oholtza gainean arao bat antzetzuten, musika jo zen, bertso-saioa egin, bizikletaren gaineko erakustaldia... Bal-

dintza bakarra zen ikuskizunetan euskara erabiltzea, eta parte-hartzaileek ondo baino hobeto bete zuten egin beharrekoa, kalitate handiko saioak erakutsi zituzten eta. Ekitaldia Julian lantzi eta Ainhoa Etxebarria aurkezleek gidatu zuten. Talentu erakustaldiaren ostean, kalejira izan zen Bertoko eta Kantareluxen eskutik; euria egin arren, giro ederra egon zen. Herri-bazkarian 450 lagun inguru batu ziren, eta bazkalostea Taberna Ibiltariak girotu-

zuen, agertokira igo ziren elkarteek eta herritarrek lagunduta. Eguna biribiltzeko, erronomia izan zen Gora Herria taldearekin. "Aurtengo Lagatzu Eguna amaituta, betiko moduan, oso sentsazio ona dugu", esan zuten antolatzaileek. Datorren urteko Lagatzu Eguna – Euskal Jaia buruan dute dagoeneko, baina hori baino lehen, urrian, Lagatzuren 25. urteurrena ospatuko dute; laster emango dituzte ospakizun-ekitaldiaren xehetasunen berri.

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8.00-22.00

ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31



“Euskal kultura altxor moduan gorde, erakutsi eta zaindu behar dugu”

UNAI ETXEBARRIA | Etxebarria Aita-sume Trikitilariak

Agenda beteta dute Etxebarria aita-sume trikitilariak, eta udako emanaldietako bi egin dituzte Larrabetzun eta Goitioltza Lezamako auzoan hurrenez hurren. Trikitiaren eta panderoaren soinuaz gain, euren umorea eta izaera aparta ekarri dute Txorierrira.

Emanaldiz beteta duzue uda, eta egun batzuetan ere bi saio... Nola ateratzen da bizirik halakoetatik?

Bada, bizirik atera behar da nahitaez (karkar). Emanaldi guztietara berdin joaten ahalegintzen gara, nekea kenduta eta gogo berberarekin, baina batzuetan kostatzen da. Adibidez, uda amaieran saio asko izaten ditugu eginda eta deskantsatzeko beharra sumatzen da... Nolanahi ere, gure bizitza beti izan da horrela eta ohituta gaude: txikitan aita abenduan, urtarrilean eta otsailean ikusten nuen, eta

“Gure arrakasta izan da gehienbat etxekoa eta nolakoak garen erakustea eta naturaltasuna”

martxotik aurrera, tantaka. Hortaz, berarekin lanean hasi nintzenean banekien zer zegoen: hau gure lana da eta horrela hartu behar dugu.

Herriko jaietan ez ezik gizarte-sareetan ere bazarete biralak. Asko lagundu dizuete azken horiek?

Aurretik ere gauza pilo bat egiten genituen gure inguruan, baina gure burua kanpoan ezagutzera ematen lagundu digute. Azken batean, zure lana eta izaera grabatu eta eskegitzen duzu, eta jendeak ikusten du ez zarela gizarte-sareetan eskaintzen den betikoa. Gure arrakasta izan da gehienbat etxekoa eta nolakoak garen erakustea eta naturaltasuna. Dena dela, gizarte-sareak ez dira eguneroko gauza,

erremienta baizik, gaur egungo bizitzan inportantea dena, baina ez dira buru-bel-larri ibili behar den gauza.

Adibidez, lerro hauek idaztean 46.000 jarraitzaile baino gehiago dituzue Instagramen, eta haien artean Europako beste herri batzuetakoak, Estatu Batuetakoak eta Hego Amerikakoak ere badaude.

Euskal kultura ikusten dutenean flipa egiten dute. Hura da azken batean altxor moduan gorde, erakutsi eta zaindu behar duguna. Nortzuk garen, nolakoak... hori gustatzen zaio kanpoko jendeari. Turis-tentzako pisuak alokairuan ipintzeak dirua emango du epe laburrean, baina gure nor-tasuna da Euskal Herria salbatuko duena.

Naturaltasuna aipatu duzu lehen. Inprobisatutako bideoak dira zuenak?

Bideoen % 90 bai. Jotzen gabiltzala edo zerbait ikusten dudanean grabatutako bideoak dira. Geroago editatu, eta gi-zarte-sareetara igotzen ditut. Gainerako %10a –esaterako, pertsonaiak egiten di-tudanean– apur bat gehiago pentsatuta daude, baina ez asko: buruan apur bat iru-dikatzen dut, aitari esaten diot eta egiten dugu.

Umorea badu aitak...

Duela urte batzuk esan zidan jubilatze-ko gogoia zuela eta neuk paperak hartze-ko eta nahi nuena egiteko. Ados nengoela erantzun nion, baina horren truke gi-zarte-sareetan egon behar zuela. Hasieran, “Bueno... Bale...” esan zidan, baina bigar-ren bideoa ikusi zuenean “Joder, me veo hasta guapo!” botatu zuen (kar-kar). Gustua sartu zaio barruraino.

Bi disko dituzue kalean, Lau belaunaldi eta Familia gara, eta bertan euskal ohiko kantak ez ezik, abesti moder-noagoak ere sartu dituzue; adibidez,

Loquilloren *El ritmo del garaje...*

Aitaren gauza da hori, izan ere, esaten diodan moduan, “el viejo rockero nunca muere” (kar-kar). Rock-abestiak gustatzen zaizkio eta abesti horietan ere erakusten du trikitiarekin duen abilezia.

“Kanpoan flipa egiten dute bi musika-tresna hauekin bakarrik zer sortu daiteken ikusita”

Emanaldiak Euskal Herritik kanpo ere egiten dituzue, esaterako, Kantabrian eta Burgosen. Zelan hartzen zaituztete bertan?

Gu, beharbada, aspertuta gaude trikitia eta panderoa entzuteaz, baina kanpoan flipa egiten dute bi musika-tresna hauekin

bakarrik zer sortu daiteken ikusita. Behin, esate baterako, Valladolidera joan ginen J.J. Vaquero umoregilearekin grabatzera, eta poteoan eta jotzen ibili ginen handik. Jakina, abesti ezagunak jo genituen hangoek ere kantatu ahal izateko, eta flipa egiten zuten trikitiak eta panderoak sortzen duten poztasuna dela eta. Gizarte-sareetan bideoei buruz egindako aipamenetan ere ikusi daiteke hori, ze askotan halakoak idazten dituzte: “Ez dut ezer ulertzen, baina izugarri gustatzen zait.”

Uda gelditu barik ibiliko zarete, baina baduzue epe laburreko proiekturik?

Bada, disko berria aterako dugu Durango-goko Azokarako. Gure abestiak zein kanta batzuen bertsioak batuko ditugu bertan, eta dagoeneko hasi gara gure abesti batzuk grabatzen. Gainera, uste dugu udan gure abestiren baten aurrerapena egiteko moduan egongo garela.

Saga

Koldo Etxebarria (1960) eta Unai Etxebarria (1993) aita-eme basauriarrek osatzen dute Etxebarria Aita-eme Trikitilariak bikotea. Musikariena saga bateko kideak dira, Koldoren aitite eta aita ere trikitilariak izan ziren eta: Eduardo Etxebarria *Piti* (1900-1993) eta Luis Etxebarria (1928-2005). Unai aitaren pausoei jarraitzea erabaki zuen gaztetxo zela. “Beste garai batzuk ziren orain dela 20 urtekoak, eta nik ikusten nuen aita eta aitite joaten zirela batera jotzen. Baina aitite gaixotu zen eta aita beste batekin jotzen hasi zen. Behin, 10 urte-edo nituela, panderoa oparitu zidaten, eta, egia esateko, ez dakit oparitu zidaten zer egiten nuen ikusteko edo panderoa

gozatzeko. Izan ere, nik ez nekien ezer jotzen. Gauza da bilduma-disko bat ere oparitu zidatela, eta konturatu nintzen hango abestiak errepikatze-ko gauza nintzela, eta soinu berberak atera. Aitari erakutsi nion, eta nahi izanez gero hurrengo hilabetean berarekin jotze-ko esan zidan. Bada, Sukarrietan egin nuen lehendabiziko emanaldia 11-12 urte nituela”.

Harrezkero, aitarekin ibiltzen da herririk herri, Euskal Herriko eta inguruko jaiak euren doinuez girotzen eta alaitzen. Era berean, mundu birtualera eraman dituzte trikitia eta panderoa, eta euren musika eta umorea biral bihurtu dira gi-zarte-sareetan.

L. LEIZABLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857



OAKLAND
ENGLISH



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisoloko 4, beheko B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com



**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



2- Añanako pikota



3- Tuestako kapitela



4- Villamaderneko kanpadorrea




5- Angostoko santutegia

Arabako ibilbide historikotik (II)

Aurreko alean hasitako ibilbidea jarraituko dugu, Arabako lurretatik ibilbide historikoa hain zuzen. Etapa honetan 17 km inguru egingo ditugu, baina, jakina, bakoitzak bere erara egokitu ahal izango du. Ibilbidea aurreko etapan utzitako lekuan hasiko dugu, Gesaltza-Añanan. Gari-soloen arteko bidexketatik aurrera egingo dugu eta beste batzuen artean, Tuestako eliza interesgarria gozatuko dugu. Etapako azken zatia menditsua da, eta zuhaitzen artetik doa gora eta behera. Angostoko kanpina eta monasterioa pasatu, eta Villanueva de Valdegovían amaituko dugu. Ibilbidetik kanpo, inguruan ere badago zer ikusi; hori arratsalderako utziko dugu.

t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Añanan GR1eko marka zuri-gorriak aurkitu ditugu. Gatzaga (1) itzela atzean utzi, eta gora egin dugu herriko kale artean. Herritik irtetean, pikota (2) topatu dugu, garai batean zigor publikoak jasotzeko lekua zena. Gari-soloen artean jarraitu dugu, bide eta pista artetik eta beti marrei jarraituta. Bost kilometro inguru egin ditugu eta Tuesta herrira heldu gara. Merezki du bertako elizako portiko erromaniko berantiar (3) ederra astiro behatzea, eta, bide batez, kapitelen artean





6- Zin artea



7- Bellojineko lehiu erromanikoa



8- Baronatarren dorretxea



9- Villanañeko pikota

erotismoz beteta dagoena topatzea. Zein asmorekin zizelkatu ote zuten? Ondoko etxe batean giltzak lortuz gero, barrura sartu gaitzke, bisitak merezi du eta.

Aurrera egin dugu –nahi izanez gero, aukera dago Espejon sartu-irten bat egiteko–, eta hurrengo herria Villamaderne da. Kanpandorra (4) elizatik bereizita dago eta hori ez da arrunta. Eliza gehienetan bezala, kanpaiak itzelak dira. Mendian sartu gara aurrerago, eta gora eta behera eginez jarraitu dugu ibilbidea amaitu arte. Urduñara doan errepidea gurutzatu dugu, mendian beste aldetik sartu gara, eta kanpinaren bazterretik Angostoko monasteriora (5) heldu gara. Zabalik aurkitu dugu eta barrura sartu gara. Jarraitu kartelei, eta hurbil dago batzarrak egiteko eta zin

egiteko erabiltzen zen artea (6). Merez du panelak irakurtzea, inguruko historia eta ohiturak ezagutzeko. Berrito sartu gara mendian eta gaurko etapa Villanueva de Valdegovían amaitu dugu. Bailarako udal-etxea bertan dago.

Arratsalderako, inguruan badago zer ikusi. Villamaderne ondoan Bellojín auzoa dago eta bere ermita erromanikoak (7), nahiko abandonatuta dagoenak, beste garai batera eramango gaitu. Beste aldetik, Baronatarren dorretxea (8) ere badago, dotorea eta ondo berrituta, eta bisita gidatuak egiten dira hura ezagutzeko. Ondoko herrian, Villanañen, beste pikota (9) bat dago, XIV. mendekoa. Astirik eta gogorik izanez gero, Villanueva inguruan eskalada egiten den leku zoragarriak daude bisitatzeko.



Eskuratu hemen
ibilbidearen *track-a*.

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai itzaguru Facebooken

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30
Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

TURREGOTTI
JATETXEA
Laurieta etorbidea, 27
48160 Laju-Sizkolia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaumegalli.com

Azalak memoria dauka, zaindu ezazu!

Urteko hilabeterik beroenetan gaude, eta, gainera, egun eguzkitsuenetan. Eguzkitan ordu luzeak ematen baditugu, neurriak hartu ezean, ondorio larriak izan ditzakegu osasunean. Larruazala organo liluragarria da, eta bizitzan zehar bizi izan ditugun esperientzien metatze-ondorioak gogorarazteko eta erakusteko gaitasuna du. Azalaren memoria ez da mito bat.

Eguzkiaren eraginpean egoteak gure azalean inpaktua du

Larruazalak memoria duela esateko arrazoi nagusietako bat gure bizitzan zehar eguzkitan egoteak duen metatze-efektua da. Eguzkiaren erradiazio ultramorea azaleko geruza sakonenetan sartzen da, eta larruazaleko zelulak kaltetu ditzake, zahartze goiztiarra, zimurrak, eguzki-orbanak eta, muturreko kasuetan, azaleko minbizia eraginez.

Eguzkiak eragindako kalteak metagarriak dira eta denboran zehar batzen dira. Nahiz eta gure ohiturak aldatu eta larruazala bizitzaren ondorengo etapetan babestu, aurreko eguzki-esposizioaren ondorioak ager daitezke.

Gaztaroa, gure azalerako funtsezko etapa da

Gaztarooan, gure larruazala gogorragoa da, eta errazago susper daiteke kalteetatik. Hala ere, etapa horretan hartzen ditugun erabakiek epe luzerako eragina izan dezakete.

Eguzkipean babesik gabe luzaro egoteak, erretzeak edo osasungarriak ez diren ohi-turak izateak larruazalaren zahartze-prozesua bizkortu eta larruazaleko gaixotasunak garatzeko arriskua areagotu dezakete.

Larruazala zaintzeko funtsezkoa da ohitura onak hartzea adin goiztiarretik, kalteak minimizatzeke eta epe luzera larruazalaren osasunari eusteko.

Hortaz, hona hemen azala zaintzeko hainbat gomendio:

1. Ezinbestekoa da eguzki-krema erabiltzea, baita eguna lainotuta dagoenean ere. Zalantzarik gabe, gure armarik onera da eguzki-erradiazio kaltegarrietatik babesteko. Eguzki-krema on bat aukera-



zterako orduan, zenbait alderdi kontuan izan behar ditugu. Espektrora zabalekoa izan behar du, urarekiko erresistentea eta babes-faktore altua izan behar du, 30 SPF (Sun Protection Factor) edo handiagoa. Horrez gain, beste hainbat gomendio izan behar ditugu kontuan:

- Garrantzitsua da aurpegirako eguzki-krema erabiltzea. Zergatik? Aurpegiko larruazala gorputzekoa baino finagoa eta delikatuagoa denez, komeni da babes-krema berezi bat erabiltzea, testura atseginagoak eta egokiagoak dituenak.
 - Garrantzitsua da bi ordutik behin berri ere crema ematea, edo 40 minututik behin, bainua hartzen bada.
 - Crema, eguzkitan jarri baino 30 minutu lehenago eman behar da.
 - Kontu handiz ibili behar gara egun lainotsuetan edota haizedunetan, eguzki-erradiazioa berdina baita, baina bero-sentsazio baxuaren ondorioz, ez dugu pentsatzen eguzki beteko egun batean bezala babestu behar garenik.
- 2.** 12:00etatik 16:00etara ez zaitez eguzkitan jarri, egunaren erdiko orduak saihestu.
- 3.** Ez zaitez eguzkiz ase. Hondartzara joateko irrikan zaude, erlaxatzeko, udako egun horietaz gozatzeko, azken finean. Baina ez da gomendagarria hondartzan edo igerilekuan egun luzez eguzkitan egotea. Gogoan izan eguzkitan jartzeak progresiboa izan behar duela beti.

4. Osagarri batzuk aliatu bikainak dira, hala nola hegal zabaleko kapelak edo txapelak, eguzkiak aurpegiaren zuzenean ez emateko.

5. Eguzkia hartu aurretik kontuz ibili kosmetikoak, koloniak, lurrinak edo konposizioan alkohola duten produktuak erabiltzearekin. Fotosentikorak izan daitezke eta erredurak eragin ditzakete.

6. Eta ez kosmetikoak bakarrik. Arreta berezia jarri behar da sendagai fotosentsibilizatzaileekin, hala nola antibiotikoekin, hanturaren aurkakoeekin, ahotik hartzen diren antisorgailuekin eta abarrekin. Horregatik, tratamenduan egonez gero, garrantzitsua da medikuarekin kontsultatzea.

7. Esposizioaren aurretik funtsezkoa da larruazala zaintzea. Horrela, etxean egunero edertasun-errutina jarraitu behar da: esfoliatu + garbitu + hidratatu. Zer lortzen dugu horrekin? Larruazala osasuntsuago egongo da eta, ondorioz, beltzarantzea uniformeagoa eta iraunkoragoa izango da.

8. Dieta ere garrantzitsua da. Jaten duzunak zure larruazalaren osasunean eta egoeran eragiten du. Horrela, elikadura orekatua izatea ere ezinbestekoa da larruazal osasuntsu eta fotobabestu baterako. Adituek fruta eta barazki gehiago hartzea gomendatzen dute.

9. Eta edan ura. Kanpotik bakarrik ez gara hidratatu behar, barrutik ere bai. Funtsezkoa da larruazala hidratatuta edukitzeke behar adina ur edatea. Egunero bi litro inguru edatea gomendatzen da.



BAPEATZEA modan ote?

Gero eta gehiago dira erre orde zigarro elektronikoa edo *bapeatzailea* erabiltzen dutenak zigarro konbentzionalen kontsumoa murrizteko. Gailu horien erabiltze gehienak erretzaile ohiak edo euren tabako kontsumoa gutxitu nahi duten erretzaileak diren arren, nerabeen artean gero eta arrakasta handiagoa izaten ari da. Adituek diotenez, gero eta gehiago omen dira bapeatzeko ohitura horretan hasten diren gazte eta nerabeak. Eta horren ondorioz, gazteen artean tabakoarekiko mendekotasunaren atea bihurtzen ari dira.

Zergatik bapeatzen dute gazteek?

Gazteek bapeatzen dute zapore gustagarriak dituztelako, ontzi dotore eta erakarriak dituztelako eta USB portu batean kargatu daitezkelako. Gazteei sinestarazi zaie gailu elektronikoak ez direla zigarroak bezain kaltegarriak, baina hori ez da horrela.

Ze ondorio ditu osasunean bapeatzeak?

- Adikzioa: nikotina dute, mendekotasun handiko droga. Ez da beharrezkoa egunero erretzea mendekotasuna izateko.
- Antsietatea eta depresioa: nikotinak antsietatea eta depresioa okertzen ditu. Memoriari, kontzentrazioari, autokontrolari eta arretari ere eragiten die, bereziki garatzen ari diren garunetan.
- Erretzaile bihurtzea: bapeatzen duten pertsonak aukera gehiago dituzte zi-

garro arruntak erretzen hasteko eta litekeena da etorkizunean beste mendekotasun batzuk garatzea.

- Inpotentzia: ebidentzia dago gizonengan disfuntzio sexuala eragin dezakeela.
- Lo egiteko arazoak.
- Substantzia kimiko kantzerigenoen eraginpean egotea.
- Bronkitis kronikoa.
- Bizia arriskuan jar dezakeen biriketako kaltea.

Baliteke osasunean beste ondorio batzuk eragitea, oraindik ezagutzen ez ditugunak. Zigarro elektronikoak ez darama hainbeste denbora gure artean, horregatik oraindik ez dira ezagutzen osasunerako dituen arrisku guztiak.

Familientzako informazioa: nola erantzun bapeatzeari?

Nerabeekin bapeatzeari buruz hitz egiteko unerik onena, probatu baino lehen da. Horretarako, bapeatzaileen inguruko informazioa bilatu, ze ondorio dituen, ze gailu dauden, zer onartzen duen legeak... Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta erosoagoa sentituko zara zure seme-alabekin hitz egiten, eta gaiaren inguruan hausnartu eta eztabaidatu ahal izango duzu. Elkarrizketa izateko unea iristen denean, has zaitez galdetzen ea zer dakien eta zer pentsatzen duen bapeatzearen inguruan. Entzun lasai, ez moztu eta utzi nahi duen guztia esaten. Une egokia denean, eran-

tzun lasai, bapeatzeari eta eragin dezakeen kalteari buruz ikasi duzuna partekatu.

Etxeko nerabeak erretzen duela onartzen badu edo horretaz ohartzen bazara, saihestu neurritz gain erreakzionatzea edo kritika gogorrek egitea. Horren orde, galdetu zergatik hasi den edo zerk bultzatu duen horretara, zuen seme-alabek ikus dezaten ulertu nahi dituzula.



Eguzkizaleak

Eguzki izpi bat bistatzen dutenean, hor ikusiko ditugu *sugelinda* edo *sugelandarak* geldi-geldi harri gainetan, eguzki amandreak euren gorputzak epeldu arte.

Halakoxeak gara gutako asko, eta ez dugu aukerarik galtzen eguzkiak gozatzeko. *Eguzkibegitan* jartzen gara, eguzkiak gehien jotzen duen lekuan hain zuzen ere ('solana'). Eta, jakina, ihes egiten diegu horrelakoetan paraje laiotz edo ospelei; gure inguruan *eguzkibakoa* edo *kontrasola* ('umbría') esaten diegu.

Nahiz eta ez garen odol hotzeko narrastiak, baditugu gure estrategiak, eta, haize fina dabilenean, haizealdean barik, babesean jartzen gara, *haxe-ekzutuan* (haize-ekzutuan).

Hegoaldetik haize epel eta sikua etorri ohi da gurera. Sondikan, esaterako, haize horri *herriko haxea* edo *haxe sikua* esaten diote; Larrabetzun, berriz, *haxepela* (haize epela), *goikoaxea* (goiko haizea) edo *hegoaxea* (hegoaizea).

Dena dela, sargori egiten duenean, edo *haize-erreak* astintzen gaituean, erne ibili behar dugu. Eguzki-orduak mugatzea komeni da, burua estaltzea, krema erabiltzea, freskatzea eta hidratatzea. Sugalandarak ere, sutan jarriz gero, erre egin daitezke-eta.





"Proiektu bat amaitu baino lehen banago hurrengoan pentsatzen"

GAIZKA PEÑAFIEL DAÑOBEITIA, trikitilaria eta argazkilaria

Lezama (1985). Berak aitortu duenez, ez daki geldirik egoten, eta horregatik hainbat egitasmotan nahastuta ikusten dugu beti. Azkena, Arratiako eta Elorrioko musika-eskoletako ikasleekin egindako *Anbototik Gorbealara* ikuskizuna, abiapuntutzat hartu dugu musikaz eta argazkilaritzaz hitz egiteko. Izan ere, trikiti-irakaslea izateaz gainera, euskal musika-taldeen argazki-artxibategirik handiena sortu du.

Zein da ikuskizunaren iturburua?

Ikasleei zein gure buruari erronka berriak ipintzeko, ikuskizun berezi bat egitea pentsatu genuen, emanaldi profesional bat zer den ikusi zezaten. Ikuskizuna dantzariekin, kantariekin... batera egin genuen, eta emanaldiaren haria Kepa Junkera izan zen. Kepa erreferentea da niretzat eta ikusten nuen berari omenalditxo egiteko beharra. Itzela izan da, ze ikuskizuneari

115 ikaslek parte hartu dute eta hasieratik izan dute oso ilusio handia. Oso emaitza polita izan da, eta emozionalki ere oso potentea. Ziur asko, musikak eman dien esperientziarik onena izan da, eta horren bila ibili gara hain zuzen ere. Izan ere, ikasgelan ikasten dena inportantea den arren, nik ez dut ezta eskola-saio bat ere gogoratzen; bizi izandako esperientziak gogoratzen ditut, eta hori nahi dut ikasleentzat ere.

Erreferentetzat duzu Junkera.

Behin, Korrika kulturala zela eta, Kepa Seminarioan egindako kontzertura joan nintzen eta handik erabat liluratuta irten nintzen. Pagarekin eta trikiti jotzen irabazten nuen diru apurrarekin hasi nintzen bere diskoak erosten eta bere jotzeko eratik ikasten. Geroago, 2003an, Mikel Zarateren omenezko *Ekidazu* diskoa grabatu genuen bere estudioan, eta lehen

hartu-emana izan zen gure artean. Urte horretan bertan hasi nintzen bere musika-eskolan irakasle, eta harremana estutu zen; itzela niretzat!

Ikasleentzat erreferente izatea gustatuko litzazuke?

Erreferente izatea ardura handia da, eta saiatu behar duzu eredugarria izaten. Ni asko inplikatzan naiz eskolan. Azken batean, musikatik haratago, gauza asko gertatzen dira ikasgelan, eta batzuetan ikasleak kezkekin etortzen dira. Gustura egon behar da ikasteko, eta, nire ustez, batzuetan hobe da musika-eskola albo batera utzi eta kezkatzen dituen horri irtenbidea-edo ematea, ikasleek ikusteko guztiok halako egoerak bizi izaten ditugula. Ez dakit baten batek musika-erreferentetzat izango nauen, ibilbidea irakaskuntzan jorratu dut eta, baina espero dut arlo pertsonalean behintzat baten batentzat erreferentea izatea.

Hamabi urterekin hasi zinen trikitia jotzen, eta 16 urterekin eskola ematen. Bitxia da oso.

Lau urte horietan asko jo nuen etxean zein kalean! (kar-kar). Gogoratzen dut egunkari batean Bertokoren gaineko artikulua argitaratu zutela, eta irakasle batek esan zuen nigan nahiko afizio berezia ikusten zuela eta uste zuela zerbaitea ailegatuko nintzela. Bada, nik ez dakit ausartuko nintzatekeen ikasle bati buruz hori esatera, bizitzan aldaketa asko daudelako, baina, bueno, behintzat mundu honetan jarraitzen dut. Hala ere, nire asmoa ez zen trikiti-irakaslea izatea. Egia da nire burua Lehen Hezkuntzan-edo ikusten nuela lanean, baina trikiti-irakaslea izatera bizitzak berak eraman nau: eskola-saioak kateatuz joan nintzen hara eta hona, harik eta musika-eskolen estrukturan sartu nintzen arte. Gustura bazaude, lan polita da.



HIRU KUTUNAK

Milaka argazki eginda ditu Peñafielek, eta haietan arakatzea eskatu diogu, bere hiru kutunak aukeratu ditzan. Ez da lan erraza izan, baina elkarrizketa honetako orrialdeetan daudenak hautatu ditu.

1



Esne Beltza. Japoniako musika jaialdi garrantzitsuenean, Fuji Rock-en, egindako argazkia. 10.000 japoniar saltoka, oihuka, dantzan... euskaraz aritzen den euskal musika talde batekin eta munduko artista ezagunenez inguratuta. Izugarria izan zen. Euskara ez da mugatzailea, euskarak egiten gaitu berezi.

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 SONDIKA
944 711 282
info@inmobiliariatxorierrri.com

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERABISA ELKARTEA
Nondar galduma | Oinezan 4 48170 Zornoko (Bizkaia) | Tel: 944 522 567 | 48101patxi.com | www.patxi.com

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kirpimasajak

clinica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txorierrri ataribidea, 9 - Lortza | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com



Pozik, beraz, Arratian eta Elorrion.

Bai. Larrabetzun ere urte askoan ibili naiz irakasle, eta Lezaman, 20 urte baino gehiago. Baina pandemia ailegatu zen, eta musika-eskolek ere gero eta denbora gehiago eskatzen zidaten, eta ezin nion denari heldu. Nolanahi ere, atear hori daude, eta agian itzuliko naiz egunen batean, ze beti dugu etxera itzultzeko gogo hori.

Beste musikari batzuekin kolaboratzen duzunean ere pozik?

Bada, ez zait asko gustatzen. Desabantaila –edo abantaila– da oso jende onarekin lan egiten dudala, eta batzuetan oso txiki ikusten dut nire burua. Proposamena jasotzen dudanean, bakarrik onartzen dut benetan ekarpena ona egiteko gauza naizela uste badut. Josu Bergararekin kolaboratu dut, Kartzarot taldearekin, Nerea Zuloagarekin, Goazen! saioko kanta batean... Baina, egia esan, ez dut nire burua musikari moduan hainbeste ikusten. Zaila da irakaskuntzan sakon aritzea eta gero musika-ibilbidea izatea; azkenean, bata ala bestea aukeratu behar da denbora-faltagatik.

Gustatzen zaizu agertokira igotzea?

Bai, baina ez da nire habitat naturala. Gai-

nera, halako kolaborazioetan abesti bat edo bi jotzeko igotzen da agertokira, eta gustura egoten hasten zarenean, tira, jaitsi behar! Astrapala egitasmoarekin 10 urtez ibili ginen, eta agertokira ere igo ginen inoiz, baina ez da guztiz nire lekua. Horregatik ibiltzen naiz agertokian argazkiak egiten; ez dut inoiz ondo eraman besteez arreta nire buruan ipintzea.

Hamahiru urte dira *Lagunartean* lana kaleratu zenuela. Abestirik konposatu duzu handik hona?

Bai, baina oso serio hartzen dut diskoak egitea. Nire ustez, zer kontatu izan behar da diskoa kaleratzeko, eta batzuetan urte batean ez da lortzen zer kontatu. Egia da nire kasuan 13 urte pasatu direla, baina argazkigintzan gehiago zentratu naizenez, irudien bitartez musikaren bitartez baino gehiago dut kontatzeko, beharbada. Hamar urte hauetan egindako argazkietako batzuk liburu batean jasotzeko asmoa dut. Irudiekin batera esperientziak eta gogoetak ere idatzi nahi ditut, eta gehigarri moduan hiru abesti berri sartu.

Nola bihurtu zinen taldeen argazkilari?

Xabi Solanok *Lagunartean* diskoan kola-

boratu zuen eta hasi ginen hartu-eman handiagoa izaten. Lezamako eskolaren 25. urteurrenari buruzko dokumentala grabatu ondoren gauza gehiago egiteko gogoz lotu nintzen. Xabik esan zidan Esne Beltzaren disko berria grabatzen hasiko zirela, eta proposatu nion *making-of-a* egitea. Baietz erantzun zidan, eta harrezkero 11 urte pasatu dira. Ehunka kontzertu izan dira, ehunka leku, jende asko ezagutu... Gero beste musika-talde batzuk etorri ziren. Euskal talde gehienei egin dizkiet argazkiak.

Haiek deitzen dizute?

Gehienetan bai. Hala ere, egia da batez ere lehenengo urteetan ikasi behar dela, eta horretarako, ezagunei galdetzen nien ea kontzertuen argazkiak egitea nahi zuten. Horrela, pixkanaka-pixkanaka, joaten da harremanak sortuz eta zure lana ezagun egiten da mundu honetan. Nire lan egiteko modua ere gustatzen zaie, ze hasi nintzenez argazkilariok ez geunden kontzertuetan ondo ikusita...

Zer dela eta?

Argazkilariok ulertu behar dugu kateko azken katebegia garelako eta musikarien,

teknikarien... lana errespetatu eta baloratu behar dugula. Baita publikoa ere. Ager-tokiaren inguruan ninjak bezala ibili behar dugu: inork ez bazaitu ikusten, hobeto. Baina, aldi berean, kontzertuaren momentu guztiak biltzen ahalegindu behar dugu, eta oreka topatu behar da horretarako. Idatzita ez dauden arauak daude: non sartu ahal zaren eta non ez, gainerakoen lanari trabarik ez ipini...

Ez du erraza ematen.

Sorkuntza-prozesua da, eta arreta ematen dizuten gauzen bila ibili behar duzu. Poztasun handienak hortik etorri zaizkit niri. Adibidez, Berri Txarrak taldeak agur esateko biran, Oialumen, momentu batean oso argi ikusi nuen Gorkaren gitarra, eta egindako argazkia oinarritzat erabili da taldearen omenez Lekunberrin ipinitako murala margozteko. Bestalde, oso azkar egin behar da lan, ordubete-edo dugulako, ahalik eta lan txukunena egiteko. Gainera, taldeek eskertzen dute argazki-sorta zabala edukitzea, angelu guztiak ikusi ahal izateko, lehenengo planoak, argazki zabalak... Ni ahalik eta lan konpletoena egiten saiatzen naiz beti; hau da, norbait kontzertura joan ezean, argazkien bidez zelangoa izan den irudikatu dezan.

Oso estilo berezia duzu; zelan deskribatuko zenuke zeuk?

Bete-betekoa dela esango nuke. Kontzertuetara hiru argazki-kamera eramaten ditut, eta bakoitzak bere objektiboa du: arrain-begia, angelu ertaina eta zooma. Ondorioz, denetarik atera dezaket: publikoa, musikariak eta eszenatokia baten dituzten argazki zabalak zein detaile txikiak. Beste aldetik, nahiz eta zuri-beltezko argazkiak ere egin, gustatzen zait argazkiak kolore aldetik oso indartsuak izatea. Gainera, gizarte-sareetan asko erabiltzen direnez, deigarriak izan behar dira, nire ustez.

Lan polita dela dirudi.

Bada, famatuekin ibiltzen zarelako, hasieran ilusio handia egiten duelako eta zure argazkiak gizarte-sareetatik ibiltzea gustatzen zaizulako. Baina nik ez dut jada ikuspuntu horretatik lan egiten, beste gauza batzuk ere egon behar direlako: lan-baldintza onak, ordainsaria... Zuk ere, jakina, profesionaltasuna eskaini behar duzu. Ni gehien pozten nauena da musi-

2



Kepa Junkera. Lezio ugari ikasi nituen Keparekin; erronka berriak bilatu behar direla, iraultzaile izatearen balioa, porrotetatik arrakastatik baino gehiago ikasten dela eta uste dugunean dena erortzearekin dela, altxa eta aurrera egitea baino ez dagokigula. Biba zu, Kepa!

3



Gorka Urbizu (Berri Txarrak). Azken birako argazkien artean ez da onena, baina bai ordea urrunen heldu dena. Agur kontzerturako taldeak egindako kamisetetan erabili zen eta baita gero Lekunberriko Udalak taldearen omenez izendutako 'Berri Txarrak Plaza'n sortutako mural erraldoiean ere. Badatik Berriren zale askoren etxeko hormetan ere badagoela. 'Gitarra astindu eta ikusi kanturik baduen hor nonbait ezkutuan...'



Bi pasio

Kurutze Lezamako dantza-taldean txistua jotzen ikasi bazuen ere, benetan trikitiak ematen zion arreta, eta, horregatik, Bertoko Zamudioko elkartearen eman zuen izena. Instrumentuarekin jo ta ke ibiltzeaz gainera, asko gustatzen zitzaion kalean jotzea. "Alde sozial hori izugarri gustuko nuen. Izan ere, nire betiko lagunek beste zaletasun batzuk dituzte, eta trikitiak ekarri dit antzeko gustuak dituen jendea ezagutzea, Euskal Herri osoan lagun berriak egitea, inguru euskaltzaleago batean ere murgildu ahal izatea, hainbat esperientzia...". Hasiarik erakutsi zuen instrumenturako talentua eta gogoa, eta irakasle-ibilbideari ekin zion oso gaztea zela. Bidean, zenbait proiektutan hartu du parte, hala nola *Lezamako Andramariak* (2002) eta *Ekidazu* (2003); *Lagunartean* bakarkako

diskoa (2011) kaleratu du; eta kolaborazioak egin ditu hainbat musikarirekin.

Eskola emateko, gaztaroen bidelagun izan zuen trikiti erabiltzen du oraindik. "Gorria da eta banda zuriak ditu. Ikusi bezain laster maitemindu nintzen berarekin". Txorierrin musika-eskola publikoaren egoteko beharra azpimarratu du. "Txorierrin eta Arratia oso antzekoak dira. Musika-eskolako irakasleok herriz herri ibiltzen gara Arratian, eta uste dut bertan ere zerbait antzekoa egin daitekeela. Alde batetik, gazteek herrian bertan, edo ondoko herrian, izango lukete musika non ikasi; eta bestetik, ikuskizun edo egitasmo komunak eginez, herrien arteko lotura estuagoa izango litzateke. Hau da, bailara egingo genuke".

Beste aldetik, txikitatik da argazkigintzaren zale amorratua, eta eskuetan

lehen aldiz kamera digital bat izan zutenean are eta handiagoa bilakatu zen bere afizioa. Autodidakta da, eta ekinean ekinez joan da ikasiz eta bere teknika landuz, hariak eta euskal musika-ageretokiko argazkilari estimatuenetako bat bihurtu den arte. Taldeen kontzertuak dokumentatzeaz gainera, argazkietan betikotu ditu Lezamako urteetan izan duen bilakaera –Lezama iruditan webgunea– eta herriko egitasmo nagusiak, esaterako, Gure Esku mugimendua eta Lezamako Mugetatik mendi-lasterketa. Argazkiak ez ezik, bideoklipak ere egin ditu lezamarrak, nahiz eta aspaldi honetan arlo hori apur bat baztertuta duen. Bere bideoklipik biralena da *Erre zenituzten*, Larrabetzuko Bizkargi dantza-taldeko gazteekin grabatu zuena eta mundu osora zabaldu dena.



Zure taxi,
Teorietikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24g **94 480 09 09** 

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zerbitzu bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitateak: umeak

Urte 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

kariet eta produkzio-jendeak nire lana baloratzea eta errespetatzea: zerbait ondo egiten gabiltzan seinalea da.

Neketsua ere bai.

Ikusten den lan polit horren atzean daude orduz kanpo lan egitea, zure gainean erori daitekeen kalimotxo, agertokiko arriskuak, etxera ordu txikietan itzuli behar izatea, argazkiak lantzea... Talde batzuek asko estimatzen dute egindako lana, baina beste batzuek, ez hainbeste. Batzuetan oso momentu politak bizi izaten dira; beste batzuetan, dezepzio txikiak.

Batez ere Euskal Herrian egiten duzu lan.

Estatutik ere jasotzen dut eskaintza dezente, baina normalean ezetz erantzuten dut. Bakarrik argazkigintzan ibiliko banintz, ezberdina izango litzateke, beharbada, baina argazkilaritza profesio bihurtutako zaletasuna da, eta lehentasuna irakaskuntzari ematen diot. Madriler, esaterako, joan behar izanez gero, aste-buru osoko bidaia izango litzateke, eta hurrengo egunean eskolara joan beharko nuke; gehiegi. Era berean, norekin lan egi-

ten dudan ere inportantea da. Adibidez, nazioarteko reggaeton-ablesari ospetsu baten eskaintzari ezetz esan nion, lehen aipatutako arrazoiak gainera, ez nintzelako hain gustura sentituko.

Ia 500 kontzertu egin dituzu, beti gustura?

Agian baten edo bitan ez naiz oso ondo sentitu, batzuetan zure esku ez dauden gauzak gertatzen direlako. Hala ere, oso giro ona dago euskal musikarien artean, eta oso ondo baloratuta nagoela sentitzen dut: nire lekua eman didate eta beste taldekide bat banintz moduan tratatzen naute.

Gogoratzen duzu baten bat bereziki?

Alde batetik, Esne Beltzak Japonian, Fujirock jaialdian, egin zuena 2018an. Jaialdi horretatik nazioarteko artistarik onenak pasatzen dira, eta agertoki nagusietako batean euskal talde bat egotea egundoko lorpena da. Gainera, esperientzia izugarria izan zen hamar mila japoniar ikustea dantzan, irrintzika, euskaraz ahal moduan abesten... Eta bestetik, Berri Txarrak agur-kontzertua, energia oso berezia sor-

tu zelako. Hunkigarria izan zen oso.

Zelan uda?

Hamabost bat kontzertu egingo ditut, eta batez ere Esne Beltzaren agur esateko biran ibiliko naiz. Bira 2025ean amaituko dute, eta haiekin hasi nintzen, ahalik eta ondoen itxi nahi dut etapa hau. Gero, hiru hiriburuetako aste nagusiak hurbildu ahala, kontzertu gehiago aterako dira. Nolanahi ere, gaur egun gehiago pentsatzen dut zein kontzertu egin eta zein ez. Lehen 60 kontzertu inguru egiten nituen urtean, eta ezin da horrela ibili: autoz leku batetik bestera, lo gutxi...

Lehen aipatutako liburuaz gainera, proiektu gehiagorik?

Bada, ikasleekin beste proiektu potoloago bat egitea, aurten muga oso goian ipini dugu eta. Orain arreta osoa dut Esne Beltzaren biran ipinita, baina udaberrik aurrera hasiko dira gauza berriak heltzen. Ni ez naiz gel-dirik egon daitekeen pertsona, eta proiektu bat amaitu baino lehen banago hurrengoan pentsatzen. Azken batean, proiektu eta ilusio berriak behar ditugu sortzaileok.

Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



TXORIERRIKO UDALA
EVSKALTEGIA



EUSKARA IKASTAROA 24/25 MAILA GUZTIAK

16 urtetik gorakoentzat

ORDUTEGI ZABALAK

ERRITMOAK: Astean 10 / 7,5 / 6 / 5 eta 4 ordu
Autoikaskuntza

Matrikula bi zatitan ordaintzeko aukera

DIRULAGUNTZAK Galdetu!

IKASTAROEN IRAUPENA: urritik ekianera

MATRIKULALDIA: Irailaren 2tik 26ra

A1 maila	Niveles
A2 maila	básico
B1 maila	Erabiltzaile independentea
B2 maila	Erabiltzaile aurreratua
C1 maila	Erabiltzaile gaitua

Hondartzak denontzat



lazko udan ezagutu genuen “Hondartzak Denontzat” Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen duen ekimen zoragarria. Proba moduan, egoiliar gutxi batzuek osatutako lagun-taldea joan zen hondartzara eta oso esperientzia polita izan zen. Ekimenak harrera ona izan zuela ikusita, aurten ere hondartzara joan gara eta beste hiru hitzordu gehiago ipini ditugu, zentroko pertsona askok adierazi baitute hondartzaz gozatzeko gogoia.

Lehenengo hitzordua uztailaren 8an izan genuen, eta oso zorionekoak izan ginen, alde batetik, hondartzara joan ginelako, eta bestetik, Eguzkia lagun izan genuelako –ematen du aspaldi honetan ezkutaketan jolasten dabilela–. Hondartzara ailegatu ginenean, monitoreak izan genituen zain eta goiz osoan lagundu ziguten. Monitoreek itsasertzera joaten zein toallak-eta ditugun lekura itzultzen laguntzen digute, baita bainua hartzeko

orduan ere. “Eguzkia eta itzala” zerbitzua eskatu genuenez, hamaiketako gozatu ahal genuen itsasoan bainatu ondoren.

Bestalde, aipatu beharra dago egun horretan Iruñako Gaztelueta ikastetxeko ikasleak gurekin etorri zirela hondartzara. Ikastetxeko ikasleak urtero etortzen dira gure zentrora borondatezko ekintzak egitera. Era berean, sorosleek emandako tratua eta arreta eskertu behar dugu, beti azaltzen baitira guri txangoa errazteko prest.



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

ZURE NEURRIRA



Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



Intxurretak indartsu heldu dio aurtengo jai-egitarauari

Intxurreta Larrabetzuko jai-batzordeak 20 urte bete ditu, eta urteurrenak isla izango du aurtengo jaietan. Horrela, ohiko ekintzez gainera, ikuskizun bereziago batzuk ere antolatu dituzte, herritarrek ederto pasatu dezaten. Indartsu eta gogotsu heldu diete urteurrenari eta jai-egitarauari.

a: Idoia Andrés

Ohikoa denez, andramariak hasi direla iragartzen duen txupinazoa abuztuaren 14an botako da, baina aurreko egunetan ere ekintzak izango dira motorrak berotzeko. Horrela, abuztuaren 12an, ume eta helduen futbol-txapelketaren kanporaketak egingo dira 17:00etatik aurrera. Txapelketan izena emateko, intxurretajaiatzordea@gmail.com helbide

elektronikora idatzi behar da abuztuaren 9a baino lehen. Izena ematea igerilekue-tan ere egin daiteke. Txapelketaren final-lurrekoak eta finala hurrengo egunetan, martitzean, izango dira. Martitzenean ere Kantuz Kantu ekintza eta talentu-lehiaketa egingo dira. Saioak euskaraz izan behar dira, zuzenekoak edo playback-ekoak izan daitezke, eta gehienez sei minutu iraun behar dute. Ekintzak 22:30ean hasiko dira.

Esan moduan, txupinazoa eguazten

arratsaldean botako da, baina hori baino lehen emakumezkoen pilota-partidak egongo dira frontian: Aldaik eta Osese jokatu dute Arrizabalagaren eta Bergararen kontra. Txupinazoa herriko txistulariek botako dute aurtan. "Intxurreta jai-batzordeak 20 urte bete ditu aurtan, eta txistulariak hasiera-hasieratik egon dira jai-batzordearen ondoan. Herriko txistulariek txupinazoa botatzea modua da heiei ekitaldi xumea egiteko eta esker ona

IRUSTA TABERNA
EGUNEROKO MENUK
GIZUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA

Jaietan etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub



**GAZTE
LEKU**
TABERNA

Anita Mar. 6
LARRABETZU
T. 94 455 71 91



adierazteko”, azaldu du jai-batzordeak. Txupinazoaren ostean, txaranga bat ibiliko da kale-giroa sortzen, eta 21:00etan diskodantza egongo da “umeentzat eta ez hain umeentzat”. Erromeria ere izango da Bide Batez taldearen eskutik.


Herriko txistulariak, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Alkarbaltz kalejiran irtengo dira eguen goizean, eta Bizkargi dantza-taldeak dantzen agerraldia egingo du 12:00etan. Ostean, txaranga bat ibiliko da giroa sortzen. Karrozen desfilea 18:00etan hasiko da Elkartegian, eta

koadrilek plazan ikuskizun txikia egiteko aukera izango dute; ikuskizunek gehienez bi minutu iraungo dute. Dantza-lehiaketak 22:30ean izango da, eta izena ematea 22:00etatik aurrera egin behar da txosnan. “Jai-batzordearen 20. urteurrena dela eta, musika-talde potentea ekartzea pentsatu dugu aurten. J Martina herriko taldea da eta oso indartsu dabilta momentu honetan. Hori dela eta, erabaki dugu haiek ekartzea. Kontzertua 00:00etan izango da, eta haren ostean, Zornotzako Pary&Tiza emakume dj-ek ipiniko dute musika”.

Bariku goiza ere esnatuko da kalejirak girotuta, eta 11:30etatik aurrera puzgariak izango dira igerilekuetan. Txinpasmendi gurasoen elkartearen eskutik, umeen bazkaria izango da eguerdian. Sukalki txapelketa ere egongo da gainerakoentzat. “Harremanetan egon gara umeen kontseiluarekin eta eskolarekin, haiek ere ekarpenak egiteko, eta giza futbolina antolatzea eskatu dute. Hortaz, giza futbolina izango da 15:00etan umeentzat, eta haientzako jolasak ere egongo dira eskolako aterpean”. Arratsaldean po-

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

GURE ETXEA

Hanburgesak - Anoak -
Plater konbinatuak -
Ogitartekoak - Sandwichak
Luntxak, paellak... enkarguz

Lehendakari Agirre 4 LARRABETZU 944 558 087

taberna

FOTERI

**ONDO PASA
JAIETAN!**



Andramari, 22
LARRABETZU
944 558 098



ANDRAMARIAK

Abuztuak 12, astelehena

17:00 Ume eta helduen Futbol Txapelketa: kanporaketak

Abuztuak 13, martitzena

17:00 Ume eta helduen Futbol Txapelketa: finalaurrekoak eta finala

20:00 Herri-afaria

22:30 Kantuz kantu herriko musikarien eskutik, eta talentu-lehiaketa

Abuztuak 14, eguaztena

17:00 Pilota-partidak: Aldai-Oses / Arrizabalaga-Bergara

19:30 Txupinazoa

Ostean, Ustekabe txaranga

00:00 Erromeria: Bide Batez

Abuztuak 15, eguena

11:00 Kalejira

12:00 Dantza-ikuskizuna, Bizkargi dantza-taldearen eskutik

Ostean, Ustekabe txaranga

18:30 Karrozak

22:30 Dantza-lehiaketa

00:00 Kontzertua: J Martina

Ostean, Dj Pary&Tiza

Abuztuak 16, barikua

11:00 Kalejira

11:30 Puzgarriak igerilekuan

14:00 Umeen bazkaria, Txinpasmendi guraso-elkartearen eskutik

14:30 Sukalki Txapelketa

15:00 Giza futbolina eta umeen jolasak, eskolako aterpean

18:00 Poteo-rallya

20:00 Elektrokela elektrotxaranga

22:30 Lekittoko Deabruak eta Colla de Diables Villafranc

23:30 Erromeria: Trikidantz

Ostean, tortilla txapelketa



teo rallya izango da, eta elektrotzaranga. "Lekittoko Deabruak jaietara etorri dira azken urteotan, baina urteurrenaren harira zerbait berezia egin nahi genuen eta, horregatik, haiekin batera Kataluniako Colla de Diables Villafranc taldea etorriko da: 60 lagun inguru ibiliko dira piroteknia-ikuskitzuna egiten. Ikuskizunean parte hartzeko, beharrezkoa da fraka luzeak eta txanodun jertsea-edo janzteak". Trikidantz erromeria-taldeak musika ipiniko dio gauari, eta ondoren, tortilla-txapelketa egongo da gogoa duenarentzat.

Emeteriak

Egun gutxiko atsedena hartu, eta berriro jaietan izango dira Larrabetzun, Goikolexa auzoan hain zuzen ere. Txupinazioa abuztuaren 30ean botako dute, 12:30ean, eta ondoren, apar-jaia egongo da txokoan. Marmitako- eta briska-txapelketak ere izango dira, eta dantzaldia Gauargi taldearekin. Kalejira egongo da arratsaldean, eta 21:00etan karaokea txosnan. Zirkinik Bez erromeria-taldea 23:00etan igoko da agertokira, eta ostean, Dj Behekosolo.

Aissa Intxausti eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariek saioa egingo dute zapa-

tu eguerdian, eta arratsaldean mus-txapelketa, giza probak eta kalejira egongo dira. Bingo musikatua 21:00etan izango da, eta 23:00etan, erromeria Altxaporru taldearekin. Domekan, bestalde, artzain txakurren erakustaldia egongo da goizean, eta goitibeherak arratsaldean. "Saioa puntuagarria izango da Euskal Koparako. Hirugarren urtea da antolatzen dela, eta oso arrakatsua izaten da: iaz jende asko batu zen bertan". Txistulariek, Akarmarik, Paskualak, Matxinek, Jesusak eta Akarbaltzek girotako kalejirak amaiera emango die jaiiei.

Intxurreta jai-batzordea indartsu eta gogotsu ailegatu da 20. urteurrenera. "Jende berri dezente sartu da eta alde horretatik oso ondo gaude". Betiko moduan, herritarrentzako egitaraua prestatu dute, helburu nagusitzat baitute herritarrek ondo pasatzea. Horretarako, ondo funtzionatzen duten ekintzak antolatu dituzte. "Azken batean, erantzuna beti da ona. Herritarrek ondo pasatzea nahi dugu, errespetuz". Horri lotuta, erasoen kontrako protokoloa dute zehaztuta. "Espero eta nahi dugu arazorik ez egotea, baina edozein eraso gertatzen dela, txosnara jo, eta martxan ipiniko da protokoloa".

EMETERIAK

Abuztuak 30, barikua
12:30 Txupinazioa.
13:00 Apar-jaia , txokoan
14:30 Marmitako txapelketa
17:00 Briska txapelketa
17:30 Dantzaldia: Gauargi
20:00 Kalejira
21:00 Karaokea
23:00 Erromeria: Zirkinik Bez
Ostean, Dj Behekosolo
Abuztuak 31, zapatua
13:00 Bertsolariek : Aissa Intxausti eta Anjel Mari Peñagarikano
17:00 Mus txapelketa
18:00 Giza probak : Harriti
Ostean, kalejira
21:00 Bingo musikatua
23:00 Erromeria: Altxaporru
Irailak 1, domeka
12:30 Artzain txakurren erakustaldia
16:30 Goitibeherak
19:30 Kalejira



Larrabetsuko Jaiak ²⁰²⁴

Abuztuak
14, 15, 16, 30, 31
ta Irailak 1



Intxunnetara Jai Batzordea





Herri-sentimendua eta jaien tradizioa sustatuko dira Lezaman

Irailaren lehenengo hamabostaldian, jaietan ibiliko dira lezamarrak, andramariez gainera, Bola-lekuko jaiak eta eta Kurtzeko jaiak ospatuko dituzte eta. Andra Mari jaiak, bestalde, nobedade handiarekin etorriko dira, jai-batzordeak webgunea sortu duelako, lezamarrek jaiari buruzko informazio osoa izan dezaten eta jai herrikoien giroan murgiltzeko aukera galdu ez dezaten.

a: Gaizka Peñafiel

“Jaiak herritik eta herriarentzat” le mari jarraituta, herriari bizitasuna ematea du helburutzat Basobaltz Lezamako jai-batzordeak. “Lezamarrak jai-giroan murgildu nahi ditugu, egun osoko ekintzetan parte hartzea sustatuz eta, horrela, koadrilen arteko harremana sendotuz”, azaldu dute. Baina pauso bat harago ere egin nahi dute, eta tradizioari eta kulturari eusteko asmoa dutela, belaunaldi berriei herriko jaiakiko sentimendua helarazteko beharra ikusi dute. “Gure premia da lezamarrengan herri-sentimendua eta jaien

tradizioa sustatzea, herriko jaien kultura eta euskararen garrantzia mantenduz. Jai herrikoiei eta euskaldunen alde gaude, parte hartzea bultzatzen duten jaien alde!”.

Horretarako, eta urtero egiten duten moduan, adin eta gustu guztientzako jai-egitaraua antolatzen ahalegindu dira. Ekintzen artean nobedadeak ere egongo dira. “Jai-egitarauari dagokienez, nobedaderik handiena da irailaren 8an, Andra Mari egunean, hainbat ekintza antolatu ditugula: erraldioen kalejira, umeentzako disko-festa, dantza-plaza... Baina badugu beste nobedade garrantzitsu bat: jaietako informazioa zabaltzeko eta herritar guz-

tiengana heltzeko, webgune bat sortu dugu, eta bertan jaiari buruzko informazio guztia egongo da eskuragarri, edonork kontsultatu ahal izateko. Webgunea hurrengo lotura honetan dago: <https://sites.google.com/view/lezamakojaiak/inicio>”.

Aipatu dutenez, ekintza guztiek dute euren xarma; hala ere, pare bat-edo azpimarratu dute. “Barikuko mozorro-jaitsierak arrakasta handia izaten du. Jaitsieran 20 koadrilak baino gehiagok hartzen dute parte, eta horrek bizitasun handia ematen die jaiari. Bestalde, herri-bazkariak harrera ikaragarria izan zuen iaz, eta han adin guztietako zorritzako asko batu ginen. Gainera,

Irailak 1, domeka Lezamako mugetatik

08:00 Mendi-martxa

09:30 Mendi-lasterketa (25 km)

10:00 Txikien martxa

10:30 Mendi-lasterketa (14 km)

Irailak 2, astelehena San Antolin Eguna (Legina auzoa)

12:30 Meza

13:00 Kopaua

LEZAMAKO JAIAK

Irailak 6, barikua

11:00 Deiadarra

18:00 Koadrilen jaitsiera.
Mozorroaren gaia: Euskal Herria

19:00 Txupinazoa eta pregoia,
Lezama Saretzen eskutik

19:30 Kontzertua: Puro Relajo

21:00 Sakatu elektrotzaranga

00:00 Sariak banatzea

00:00 Kontzertua: JotaKe erromeria

02:00 Dj Serna

04:00 Musika, txosnan

Irailak 7, zapatua Odoloste eguna

Odolosteak herriko jatetxe eta tabernetan

11:00 Deiadarra

11:00 "Lezamako II. Pumptrack
erronka", Zorribike elkarteak antolatua

11:30-14:30 Ur-puzgarriak,
umeentzako ludoketa eta tailerrak,
udaletxearen atzeko aldean

14:00 Kopaua eta bingoa, Adintsuen
Elkartean, Lezama Saretzen
laguntzarekin

14:30-15:00 Batukada,
Burrundadieren eskutik, Hilario
Astorki plazan

15:00 Herri-bazkaria, karpan

Bingo musikatua, Zorriketanek
antolatua

17:30 Mus txapelketa, Enaitz
tabernan

18:00 Koadrilen arteko lehiaketa,
Euskaldun Berri plazan

20:00 Clown magoa, Euskaldun Berri
plazan

20:00 Trikiti-poteoa

22:00 Kontzertua: Xskara

00:00 Kontzertua: Xiberoots

02:00 Dj Calonge

04:00-06:00 Musika, txosnan

Irailak 8, domeka Andramari Eguna

11:00 Deiadarra

11:30 Kalejira eta erraldoiak, Hilario
Astorki plazatik, Kurutze dantza-
taldearen laguntzarekin

12:30 Meza

13:00-14:30 Dantzatze Prest
disco-festa, karpan

13:30 Ekidazu abesbatzaren eta
Bilboko Akordeoi Taldearen
musika-ekitaldia, elizan

17:30 Euskal dantzen erakustaldia,
Kurutze dantza-taldearen eskutik,
Hilario Astorki Plazan

18:30 Esku-pilota eta pala partidak,
Lezamako Pelota Klubak antolatua

19:00 Dantza-plaza, txosnagunean,
Kurutze dantza-taldearen
laguntzarekin

21:00 Jaiak amaitzea

Irailak 9, astelehena

12:30 Meza

Irailak 10, martitzena Bola-lekuko jaiak

11:00 Deiadarra

12:00 Paella txapelketan izena
ematea

14:00 Paellak aurkeztea

17:30 Zurezko jolasak umeentzat

18:00 Txokolatada

19:30-22:00 Dj Kaktus

KURTZEKO JAIAK

Irailak 13, barikua

19:30 Txupinazoa eta odolosteak
tabernetan

19:30-22:30 Trikiti-poteoa eta
dantza-plaza, Zuzterrak taldearekin

23:00 Kontzertua: Knaiak

Irailak 14, zapatua

09:30 Aulkiak eta mahaia
banatzea

10:00 V. Kurtzeko MTB gaztetxo-
martxa, Zorribike elkarteak antolatua

11:00-12:00 Sukalki- eta tortilla-
txapelketetan izena ematea

11:00-13:30 Ur-puzgarriak eta
tailerrak

12:00 Meza

13:00 Dantza-erakustaldia,
Lezamako Areto Dantza Taldearen
eskutik

13:30 Tortillak aurkeztea

14:00-14:15 Sukalkia aurkeztea

16:30 Holi festa

18:30 Tolin Show eta bingoa

20:30 Etxebarria Aita Seme
Trikitilariak

20:00-21:00 Hirugihar- eta txorizo-
bokatak

22:30 Sorgina erretzea

Dj Bene

Irailak 15, domeka

12:30 Meza eta kopaua, trikitiak
girotua

Arratsaldean, II. Mikel Llodioaren
Memoriala Triangularra, Athleticeko
instalazioetan



Zorriketanek bingo musikatua antolatu zuen bazkalosterako eta oso giro polita egon zen. Aurten koadrilen arteko lehiaketa egongo da bingo ondoren; zein izango da Lezamako koadrilarik trebeena?"

Beste alde batetik, sexu-erasoei aurre egiteko protokoloa ere izango da, eta aurreko urtean moduan, brigada feminista osatu da jaiei begira. "Irailaren 6an eta 7an, 22:00etatik 06:00etara, brigada feminista egongo da, Moreak talde feministak, Lezamako Udalak eta Berdintasun Kontseiluak

sustatuta. Erasorik gabeko jaiak nahi ditugu, eta argi utzi nahi dugu Lezaman ez dugula inolako eraso sexistarik, homofoborik edo arrazistarik onartuko".

Ohikoa denez, Lezamako Mugetatik mendi-lasterketa eta San Antolin Eguna izango dira Andra Mari jaien bezpera. Andramariak barikuan, irailak 6, hasiko dira. Arratsaldean, jaietako ekintzarik potententzariko bat izango da, mozorro-jaietsiera, eta aurten Euskal Herria aukeratu da gai moduan. Lezama Saretzen elkarteak

pregoia irakurri, eta txupinazoak hasiera ofiziala emango die jaiei. Horren ostean, gustu guztientzako musikaz gozatzeko aukera egongo da: Puro Relajo, Sakatu, Jotake erromeria-taldea eta Dj Serna.

Zapatua Odoloste Eguna izango da, eta jatetxeetan eta tabernetan odolosteak izango dira dastatzeko. Jai-egitarauari dagokionez, Zorribike elkarteak antolatuta, *puntrack* erronka egongo da goizean, eta 11:30etik aurrera umeentzako ekintzak, hala nola ur-puzgarriak, ludoteka

Enaitz
TABERNA

Ogitaratekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE DI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

LA
GUN
KOR

Aretxalde, 68 - Lezama
944 556 538 - 607 209 343
lagunkor@lagunkor.com
www.ascosorialagunkor.com

AHOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERBITZU BULEGOA

OXANGOITI
Kutur Elkarteak **TABERNA**

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA



eta tailerrak. Kopaua eta bingoa egingo dira Adintsuen Elkartean, eta Burrundadie batukada-taldeak eguerdia girotuko du herri-bazkariaren ordurarte. Bazkarirako txartelak irailaren 1era arte egongo dira salgai dendetan eta tabernetan. Osteen, bingo, mus-txapelketa eta koadrilen arteko lehiaketa egingo dira. Clown mago baten ikuskizuna eta trikiti-poteoa ere izango dira, eta agertokira igoko dira Xsakara, Xiberoots eta Dj Calonge.

Zaindariaren eguna ere ekintzaz beteta etorriko da. Erraldoiak kalejiran irtengo dira goizean, eta disko-festa eta Ekidazu abesbatzaren eta Bilboko Akordeoi Taldearen musika-emanaldia egongo dira. Arratsaldean, bestalde, euskal dantzen erakustaldia, esku-pilota eta pala partiduak eta dantza-plaza izango dira aurten go jaiei agur esateko. Andramariak amaitu arren, jai-giroak jarraituko du Lezaman, martitzenean, irailak 10, Bola-lekuko jaiak ospatuko dira eta. Paella-txapelketaz gainera, zurezko jolasak eta txokolatada egongo dira, eta Dj Kaktusek dantzan ipiniko ditu umeak eta helduak.

Santa Kurtze

Kurtzeko jaiak lekukoa hartuko die andramariei. Txupinazoa barikuan, irailak 13, botako da eta Zuzterrak taldeak girotutako trikiti-poteoa eta Knaiak tal-

LEZAMAKO JAIAK 2024

IRAILAK 6 // BARIKUA // 18:00

mozorro lehiaketa

GAIA: EUSKAL HERRIA

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA. IRAILAK 4

@ezamako_jaiak basobaltzai@batzordea@gmail.com

dearen kontzertua izango dira. Gainera, odolosteak dastatzeko aukera egongo da tabernetan. Zapatuan, sukalki- eta tortilla-txapelketak egingo dira, eta aulkiak eta mahaiak hartzeko txartelak aurretik erosi beharko dira tabernetan. Goizean ere, Zorribike txirindularitza-elkartek antolatuta, MTB gazte-martxa egingo da bosgarren aldiz: izena emateak hiru euro balioko ditu aurretik, eta bost euro, egunean bertan. Era berean, umeentzako ur-puzgarriak eta tailerrak egongo dira, eta areto dantzen erakustaldia, Lezamako Areto Dantza Taldearen eskutik.

Bazkaldu osten, holi festa koloretsua

egingo da, eta, badaezpada, antolatzaileek bainujantzia eta arropa zaharra janzteko gomendioa egin dute. Tolin Show eta bingoren osten, Etxebarria Aita Semea Trikitilariak girotuko dute iluntzea, eta afaltzeko, hirugihar- eta txorizo-ogitartekoak salgai ipiniko dira euro batean. Sorgina erreko da, eta jaiak amaituko dira. Dj Benek musika ipiniko dio gauari. Domeka arratsaldean, eta Lezama Sport kirol taldeak antolatuta, Mikel Llodioen oroimenezko partida triangularra jokatuko da Athleticeko instalazioetan, eta bertan norgehiagoka ibiliko dira Lezama Sport, Solokoetxe eta Iberlanda.

Festa inklusiboa Lezaman



a eta t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Hiru urte dira Emáus Gizarte Fundazioa eta Athletic Club Fundazioa elkarlanean dabiltzala, kirol-egitasmoak partekatuz eta hainbat ekintzatan parte hartuz. Oraingo honetan, Futbola Buruan ekintzaren partaide izan gara, zeinak futbola, multikirola eta *walking football*-a uztartzen baititu. Espero genuen moduan, eta aurreko edizioetan bezala, oso ekintza arrakastatsua izan da. Bertan 550 pertsona baino gehiago batu ginen; hala ere, ekintzetako parte-har-

tzaileak izan ziren egitasmoaren benetako protagonistak.

Athleticeko instalazioetako futbol-zelaietan egon ziren kirol-aukeren artean, PAI Bitartean zerbitzuko taldeak lehen aldiz egin zuen *walking football*-a. Hori muga fisikoak dituzten pertsonentzako modalitatea da eta futboleko arautegi egokitu bat erabilita jokatzeko aukera ematen du. Taldeak ederto pasatu zuen, eta, hortaz, esan daiteke oso deskubrimendu handia izan dela, gustatzen zien kirola egiten jarraitu ahal izateko. Bestalde, aipatu beharra dago parte-har-

tzaileen artean arropa banatu zela kirola egin ahal izateko eta zer jan eta zer edan egon zela indarrak berritzeko. Goiz biribila izan zen, eta kirol inklusiboak eta ondo pasatzeko gogoak giro aparta sortu zuten.

Aurreko lerroetan esandako guztiarengatik, egindako lana eskertu nahi diegu Athletic Club Fundazioaren arduradunei, langileei eta boluntarioei. Era berean, gustatuko litzaiguke hau bezalako topaketak egiten jarraitzea, egunero ardatzen ditugun pertsonentzat oso onuragarriak dira eta.

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Ne-apaindegia

M^a Antonia Llodio TXPI

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Umeei saiatuagoak izaten lagunduz



t: Ursula Tomas

Ume bat ondo ateratzen ez zaizkion zereginetan ahalegintzen ez denean, garrantzitsua da egoerari enpatiaz eta umearen motibazioa eta autokonfiantza sustatzen duten estrategiez heltzea. Hurrengo lefroetan topatuko dituzue umeei saiatuagoak izaten laguntzeko estrategia batzuk.

Hazkunde-mentalitatea sustatzea

Funtsezkoa da umeei ulertzen laguntzea trebetasunak eta errendimendua ekinarren ekinez hobetu daitezkeela. Haiekin hitz egin dezakegu pertseberantziaren garrantziari buruz, eta akatsak ikaste-prozesuaren parte direla adierazi. Era berean, haiekin partekatu ditzakegu helburuak lortu aurretik erronkei eta porrotei aurre egin dieten pertsona ospetsuen adibideak.

Helburu txikiak eta lorgarriak ezartzea

Zeregin zailak urrats txikiagoetan eta era

bilgarriagoetan banatuz gero, prozesua ez da hain gogorra izango umeentzat. Lorpen txiki bakoitza ospatu behar dugu, aurrerapena ikusi dezaten eta aurrera jarraitzeko motibatuta sentitu daitezen.

Pertseberantzia lantzea

Umeek helduei behatuz ikasten dute. Erakutsi behar diegu erronkei aurre nola egiten diegun eta frustrazioa nola maneiatzen dugun. Argi hitz egin behar diegu zailtasunak gainditzeko egiten ditugun ahaleginei buruz eta hori lortuta sentitzen dugun gogobetetzeari buruz.

Giro segurua eta lagungarria sortzea

Funtsezkoa da umeek sentitzea gauza berriak egiten saiatu daitezkeela, akatsengatik epaituak edo zigortuak izateko beldurrik gabe. Izan ere, ahalegina emaitza baino gehiago baloratzen den ingurunea sustatzen du horrek. Era berean, garrantzitsuena saiatzea eta esperientzia bakoitzetik ikastea den ideia indartzen du.

Autorregulazio-estrategiak irakastea

Estresa eta frustrazioa kudeatzeko trebetasunak garatzen lagundu behar diegu umei. Horretarako, baliagarriak izan daitezke hainbat teknika, hala nola sakon arnastea, atsedenaldirak ezartzea eta erabateko arreta ematea. Lur jota gaudenean onuragarria da atsedena hartzea, eta gero berriro saiatu.

Eraikuntzaren atzeraelikadura eskaintzea

Atzeraelikadura ematen dugunean, umeek erabilitako ahalegin eta estrategiei erreparatu behar diegu, arreta soilik emaitzan ipini beharrean. Hori lagungarria da ikuspegi positiboa garatzeko, eta ahalegina balio-tsua den ideia sustatzen du.

Ahalegina aitortzea eta ospatzea

Garrantzitsua da umeen ahaleginak aintzat hartzea eta ospatzea, emaitzak perfektuak ez badira ere. Horrela, hurrengo ideia hau indartzen dugu: saiatzeko eta ikasteko prozesua da benetan garrantzitsua.

Ikasteko jakin-mina eta maitasuna sustatzea

Umeen berezko jakin-mina eta gauza berriak ikasteko nahia piztu behar dugu. Eskaini behar dizkiegu euren mailara egokitutako hainbat interes-eremu eta erronka aztertzeko aukerak. Ikasteko grina motibagarri handia izan daiteke erronkei aurre egiteko.

Beharrezkoa izanez gero, kanpoko laguntza bilatzea

Umeek ahalegintzeko zailtasun handiak dituela ikusiz gero, profesional batengana jo dezakegu laguntza bila. Haur-psikologo batek estrategia osagarriak eta pertsonalizatuak eman ditzake umei konstantzia garatzen laguntzeko.



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO



PsikoNeuro
TXORIERRI
Psikologia eta Neuropsikologia
Navarra kalea 6, 3. solairua · Bilbo
611 172 488
@psikoneuro_txorierrri



Torrealday
EURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

Malba



t: @txiribita_mundi

Malva sylvestris. Gure herrian, leku askotan topatzen dugu malba. Bide-ertzetan topa-tzen dugun arren, oso erraza da landatzen. Udaberriaren amaieran loratzen da, eta jaso behar dugu loraldiaren hasieran: loratuz joan ahala lore gutxi batzuk hartu behar ditugu egunero. Azkar sikatu behar dira, eta sikatzen direnean koloreari eusten badiote, seinale ona da. Hostoak, bestalde, loratu baino apur bat lehenago bilduko ditugu, gorrina (orbain marroixka txikiak) dutenak baztertuz. Erroak lehen urteko neguan bildu daitezke. Ondo garbitu behar dira, eta arretaz sikatu, prozesuan zehar erraz usteldu daitezke eta.

Sukaldean

Erromatarren aurretik ere preziatua zen barazki moduan, baita erremedio moduan ere, eragin leungarriak eta libragarriak dituelako. Malbaren hosto gazteak gordin jan daitezke entsaladetan, edo egosita zopetan (zopa loditzen dute).

Malba frijituak: 3-4 berakatz-atal, tipulabat eta 50 g malba-hosto. Hostoak ur irakinetan egosiko ditugu minutu pare ba-

tean. Uretatik atera, eta xukatuko ditugu. Tipula eta berakatz orritan ebaki, eta frijitu ditugu. Hostoak ere ebakiko ditugu eta tipularekin eta berakatzarekin batera frijitu ditugu. Nahi izanez gero, arrozak lagunduta jan dezakegu.

Propietate sendagarriak

Malba oso aberatsa da muzilagotan. Muzilagoa substantzia biskosa eta goma-antzekoa da, hanturak arindu eta ehunak erlaxatzen dituena. Propietate horiek direla eta, baliagarria da eztula arintzeko eta espektoria errazteko, bronkitisa, eztarriko-arazoak, eztula edo asma izanez gero. Malba beste landare batzuekin nahastu dezakegu, hala nola apo-belarrarekin, eztul-belarrarekin, huntzarekin eta plantainarekin. Era berean, digestio- eta gernu-bideen hantura arintzeko ere bada baliagarria. Hesteetako mukia lubrifikatu eta babesten du ondo funtzionatzen duela bermatzeko. Gainera, laxante arina da. Beste alde batetik, erreduretarako, hematometarako, hanturetarako, dermatitisarako eta hainbat erabilera topikoetarako ere erabili daiteke, malbak handitutako ehuna erlaxatzen du eta.

Infusioa: katilu bakoitzeko koilarakada bat

lore edo hosto siku erabili behar da, eta 15 minutuan jalkitzen utzi. Egunero 3-5 katilukada edan daitezke. Infusio hotza ere egin daiteke, eta muzilago-kantitate handiagoa izateko, hostoak 6-12 orduan ur epeletan beratu.

Erabilera kosmetikoak

Leuntasunari lotutako landarea da. Larruazal sentikorrek eta narriatuek eskertuko dute malbaren olioia. Larruazal sikuek eta helduek ere erabili dezakete. Pertsona guztiei ondo dagokien lorea da, ume txikiei zein nagusiei. Propietate emolienteak dituzenez, oso landare preziatua da tratatzeko larruazal atopikoak, ekzemak eta larruazal sikuak, kaltetuak eta zahartuak.

Malba-olioa: loreak paper batean jalkitzen izango dugu gau batean, hezetasuna galdu dezaten; mazeratua hurrengo egunean egingo dugu. Kristalezko ontzi esterilizatu batean ahalik eta lore-kantitate gehien ipiniko dugu, baina kontuan hartuta olioia bota behar dugula eta hark loreen gainetik bi hatzamar atera behar duela. Oliba-olioa, almendra-olioa... izan daiteke. Ontzia lau astean izango dugu argitan, eta noizean behin eragingo dugu.

Ondoren, oihalezko txano batekin iragazi, eta malbaren propietate emolienteak lortuko ditugu. Nahi izanez gero, olio hori eta lore gehiago erabilia prozesua berriro egin dezakegu, olio sendoagoa lortzeko.

Ortuan

Malba laguntzaile ezin hobea da ortuan, aterpea eta elikagaia delako erleentzat, tximeletentzat eta sirfidoentzat. Halaber, tranpa izan daiteke landare-zorrientzat.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen

ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



"Malva silvestris"

a: Wikimedia commons / Köhler, F. E

Magia goizetik
gauera gertatzen da.

Aldatu ohea, aldatu bizitza.



SUIT DELUX

► ZURE BIZITZA HOBETZEKO GURE OHEAK | KOLTXOIAK | BESAKLAKIAK ETA SOFAK

Derio / Derioko Seminarioa
48160 Derio (Bizkaia)
T. 944 545 147

Leioa / Iparragirre 80
48940 Leioa (Bizkaia)
T. 944 316 516

suitdelux.es



Txirla erreak ogi arraspatuarekin

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 3/4 katilukada ogi arraspatu
- 4 koilarakada oliba-olio
- 4 berakatz atal (txikituta)
- 1/2 katilukada ardo zuri
- 1/2 koilaratxokada piperbeltz gorri
- 36 txirla (garbituta)
- 1/3 katilukada perrexil (txikituta)
- Koilarakada bat limoi-birindura
- 3 koilarakada limoi-ur
- Gatza

Prestatzeko era:

Labea 200 gradutan berotuko dugu. Labe-ra sartzeko erretilu batean nahastuko ditugu ogi arraspatua, bi koilarakada oliba-olio, berakatz laurdena eta gatz apur bat. Beste erretilu batean nahastuko ditugu ardoa, piperbeltz gorria, gainerako berakatz, koilarakada bat olio eta txirlak.

Erretilu biak sartuko ditugu labera eta bertan 10 minutu inguru izango ditugu; ogi

arraspatua eragingo dugu gorri dagoen arte. Ogi arraspatua dagoen erretilua labetik atera, eta tenperatura 240 gradutan ipiniko dugu. Txirlak 10 minutu gehiago izango dugu labean, zabaldu arte; zabaltzen ez direnak botako ditugu. Ogi arraspatua perrexilarekin eta limoi-birindurarekin nahastuko dugu. Limoi-ura txirla gainetik botako dugu, gainerako olio eta ogi arraspatua.



Oilaskoa parrillan, koko- eta lima-entsaladarekin

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 8 oilasko-papar xerra
- Gatza
- Piperbeltza
- Lima bat
- 3 koilarakada koko-esne
- Koilaratxokada bat azukre
- 1/2 koilaratxokada arrain-saltsa
- 500 g aza gorri (txikituta)
- 2 tipulin (txikituta)
- 1/4 katilukada martorri

Prestatzeko era:

Parrila berotuko dugu. Oilaskoari gatz eta piperra botako diogu, eta parrilan egingo dugu hiru minutu inguru. Bitartean, lima birrinduko dugu, eta ura atera. Limoi-urari gehituko diogu koko-esnea, azukrea eta arrain-saltsa. Irabiatuko dugu, azukrea

urtu arte. Ondoren, aza gorria eta tipulina gehituko ditugu. Oilaskoa parrillatik kenduko dugu eta limoi-birindura hautsezatuko diogu gainetik. Oilaskoa eta entsalada plateretan ipini, eta gainetik martorria botako dugu.

Zazpi ezberdintasunak

Topatu zazpi ezberdintasun Loiuako argazki honetan. Zer falta da? Zer dago sobera? Zer aldatuta?



2, astelehena

Kirol-ikastaroetan izena ematea
LARRABETZU Irailaren 7ra arte, frontoian

16, astelehena

Helduentzako patchwork ikastaroan izena ematea
LARRABETZU Irailaren 24ra arte, Angulerin

Oinarrizko Internet ikastaroan izena ematea
LARRABETZU
Irailaren 24ra arte, Angulerin

Ume eta gazteentzako irakurketa-saioetan izena ematea
LARRABETZU
Irailaren 24ra arte, Angulerin

17, martitzena

Euskara-eskolei buruzko informazioa ematea
LARRABETZU
Irailaren 26ra arte, martitzenetan eta eguenetan (18:00-19:30) Angulerin

19, eguena

19:00 **Literaturaz Berbetan: Han goitik itsasoa ikusten da**, Julen Gabiria berbalagun **LARRABETZU**

22, domeka

18:00 **Zinekluba eta solasaldia: Oskar Alegriaren Zintzindurrunkarratz filma**
LARRABETZU San Bartolome ermitan

29, domeka

San Migel jaiak **LARRABETZU**



18:30 **Domekak Hori Bain: Ruper**
Ordorika **LARRABETZU** 10 euro

Oporrak gurekin partekatu



Udako oporrak herrian ematen dituzula, atzerrian, Euskal Herrian, etxean, kostaldean, mendian, herriko igerilekuetan..., bidali argazkiak aikortxori@aikor.com helbide elektronikora eta partekatu txorierritarrokin. Argazkiak paperezko aldizkarian eta webgunean argitaratuko ditugu irailan.

Ezagutu zure herrian dauden taldeak edo egin zure proposamena!

mendian

gurasoekin

Eta euskaraz egiten badugu?

jolasean

josten



Eman izena!

Izen ematea: Urte osoan zehar

747 447 579 • berbalagun.txorierrri@gmail.com

 mintzalaguna.eus

Antolatzaileak

Babesleak

Laguntzaileak





BERTOKO

Gu sortu ginen enbor beretik...

**Matrikulazio eguna: irailak 11
19:30 Zamudioko Kultur Etxean**



689 24 68 44



bertokozamudio@gmail.com



[@bertoko_zamudio](https://www.instagram.com/bertoko_zamudio)